

GAZTERIARI ZUZENDURIKO ETXEBIZITZA PROGRAMEN ETA POLITIKA PUBLIKOEN
ANALISIA

2016ko apirilaren 20an

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2.orrialdea
2. METODOLOGIA	3.orrialdea
3. DATUAK	4.orrialdea
4. GAZTEON PROPOSAMEN OROKORRAK	36.orrialdea
5. ONDORIOAK	41.orrialdea

1. SARRERA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, 2015aren plangintzaren baitan, gazteei zuzenduriko etxebizitza programen gaineko galdetegi bat burutzea erabaki zuen. Izan ere, etxebizitza eta emantzipazioari dagokionez, gazteen egoera ez da bereziki ona.

Analisi honen helburua gazteei zuzenduriko etxebizitzaren programa eta politiken gainean duten iritzia jakitea zen, geroago etxebizitza lantaldearen baitan datuak aztertzeke eta administrazioari hobekuntzarako proposamenak egiteko asmoarekin.

Galdetegian oinarrituz, erantzunak aztertu egin dira eta horren emaitzak ondorioetan eta proposamen zehatzak biltzen dituen txosten honetan ikus daitezke.

2. METODOLOGIA

Azterketa hau Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Enplegu eta Etxebizitza teknikariak diseinatu zuen 2015ean. Izan ere, etxebizitza lantaldea sortzeko eta lehenengo deialdia egiteko oinarri gisa hartu nahi zen, baina lan karga handiagatik ezin izan zen lantaldea martxan jarri. Hala ere, galdetegiaren bitartez informazioa eta iritziak jasotzea lehenetsi zen.

Analisiaren faseak:

- **Gaiaren kokapena:**

EGKrentzat garrantzitsua zen gaztez osaturiko etxebizitza lantalde bat berreskuratzea eta, enplegu lantaldearekin egin izan den bezala, administrazioarekiko lan zuzena egitea, gazte hauen nahiak eta beharrak etxebizitzako politika publikoetara helaraziz.

2015ean txosten honetan azaltzen den galdetegia diseinatu eta zabaldu egin zen eta 2016an horren erantzunak aztertu dira eta martxan jarri den etxebizitza lantaldearekin kontrastatu egin dira, txosten hau izanik horren ondorioa.

- **Ekintzak:**

Online bidezko formulario bat sortu zen. Galderak orduan zeuden programen eta politiken adibideetan oinarritu ziren.

- **Zabalpena:**

- Sare sozialak: EGK-ko sare sozialetan zabaldu zen galdetegia.
- Gazteak eta elkarteak: EGK-ko elkarten artean zabaldu zen galdetegia.

3. DATUAK

Atal honetan Internet bitartez zabalduko galdetegian jasotako datuak azaltzen dira. Guztira 49 gaztek erantzun zuten.

Galdetegia sei atal nagusietan banatzen da:

1. Datu pertsonalak.
2. Gazteek etxebizitza partekatzeko programa
3. Gazteentzako etxebizitzak gizarte partehartzearen truke.
4. Gazteentzako zuzkidura bizitokiak.
5. Gazteak babes ofizialeko etxebizitzetan.
6. Etxebizitza euskal legea.


Atal bakoitzean programaren gaineko hasierako informazio bat ematen da eta informazio gehiago ikusteko aukera ematen da esteka baten bitartez. Ondoren galdera doa eta aukeratzeko erantzunak. Bukatzeko proposamen orokorrak egiteko aukera dago.

Datuen analisia eta deskribapena egiteko galdetegiaren estruktura berdina erabili da.

1. DATU PERTSONALAK


ADINA:

Parte-hartzaileak 16-35 urte bitartekoak izan dira. Horietatik azterketa honetan presentzia gehien izan duen adin tarteak 19-24 urte bitartekoa izan da. Gainera, gehienak ez dira elkarte bateko kideak.



GENEROA:

Generoa txertatzea erabaki da, izan ere, emantzipazioarekin lotutako datuetan emakume eta gizon gazteen artean desberdintasunak daudela ikusten da. Partehartzaileen %59,1a emakumezkoak dira (29 pertsona) eta gizonezkoak ordea %16,3a (8 pertsona).




2. GAZTEEK ETXEBIZITZA PARTEKATZEKO PROGRAMA

Programa honen xedea ondorengoa da:

- "Eusko Jaurlaritzak proiektu pilotu hau martxan jarri berri du, alokairuzko etxebizitza publikoetan gazteek pisuak partekatu ahal izateko."


Galdetegiaren atal honetan programa horrekin lotutako 7 galdera egin zaizkie:

1. **ETXE KOPURUA:** 3 logelako 5 etxebizitza daude baliagarri. Nahikoa iruditzen al zaizu etxebizitza kopurua? Zergatik?



Galdera honetan bi erantzun izan dira nagusi. Alde batetik, %42,8aren ustez Alokairu Babestutako Etxebizitza guztietan pisuak partekatzeko aukera egon beharko zen eta bestetik, % 30,6aren iritziz partekatutako etxebizitzak eta "etxebizitza arruntak" ez lirateke nahastu behar. Azkenik, ehuneko txikiago baten ustez (%16,3) proiektu pilotu bat izateko etxebizitzaren kopurua nahikoa da.


2. **IZEN EMATEA:** Eskaerak banaka egin behar dira. Etxebizitza bakoitza hiru kideren artean partekatuko da, baina hauek ez daukate zertan elkar ezagutu. Ezin dira "talde-eskaerak" egin lagunekin pisua partekatu ahal izateko. Zer iruditzen zaizu? Zergatik?



Galdetegia erantzun dutenen artean ia guztiak (%91,8) ados daude izen ematerako orduan bizikidetza aukera guztiak barne-biltzearen ideiarekin, hau da, eskaerak taldeka, bikotearekin, binaka, etab. egiteko aukera egotearekin.

Hala ere, gutxiengo batek, %6ak, uste du neurria ondo dagoela eta ez dagoela zertan etxekideak aukeratu.

3. **BALDINTZA EKONOMIKOAK:** Eskatzaileek 12.000 eta 25.000 euro arteko soldatak izan behar dituzte. Zer iruditzen zaizu? Ondo egokitzen al dira limite hauek gazteen beharretara?




Programa honetan parte hartzeko baldintza ekonomiko minimo eta maximo batzuk bete behar dira eta erantzuleen %67,3aren ustez gaizki dago, izan ere, enplegurik ez dutenek ere eskatzeko aukera izan beharko lukete.

Bestetik, %18,3ak gaizki dagoela uste du ere, baina ematen duen arrazoia bestelakoa da. Horien ustez ezartzen diren diru sarreren minimo eta maximoak Alokairu Babestutako Etxebizitzetan ezartzen direnak izan beharko ziren.

Gutxiengo baten iritziz ez legoke limiterik egon behar (%2) eta badaude ere ondo dagoela esaten dutenak (%8).


4. **KOSTUA:** Logelaren errenta 125 eurokoa izango da eta honi ura, argindarra eta berogailuaren gastuak gehitu beharko zaizkio (ez IBI, komunitate edo beste zergarik). Zer iruditzen zaizu?



Logelaren kostuaren galderan bi erantzun oso desberdin izan dira gehiengoak aukeratutakoak. Alde batetik, kostuarekin ados daudenak %55,1a dira, eta beste alde batetik, prezioarekin ados ez daudenak %32,6a, izan ere, logelaren kostua errentaren araberakoa izan beharko zela uste dute.

Ehuneko txikiago batean badaude ere kostua gehiegizkoa dela esaten dutenak (%8)


5. **HORNIDURA:** Etxeak oinarrizko altzairuak izango ditu sukalde, bainugela eta logeletan. Zer iruditzen zaizu?



Programa honetan eskaintzen diren etxeak oinarrizko altzairuak dituzte eta %75,5aren arabera hori ondo dago.

Hala ere, erantzuleen %24,4ak erantzun du sukaldeko bestelako gauzak ere izan beharko lituzkeela.

6. **IRAUPENA:** Alokairu partekatu honen iraupena urtebetekoa da, hortik aurrera hilabetero luzatuko da gehienez hiru urte bete arte. Zer iruditzen zaizu?




Etxebizitza hauetan bizitzeko aukera mugatua izango da denboran eta horri buruz galdetu zaie. Berriro ere erantzunak oso desberdinak izan dira, baina hala ere, gehiengo baten ustez (%57,1) denbora mugatzea ondo dago.

Kontrako iritzia dutenek %22,4a osatzen dute eta badaude ere motzegia dela erantzun dutenak baina ehuneko txikiago batean, %18,3a.

Azkenik, %2ak iraupena luzeegia dela erantzun du.

7. **ADINA:** 35 urtetik beherakoei zuzendurik dago. Zer iruditzen zaizu?



Partekatutako etxebizitza programa honekin lotutako azken galdera adinarena izan da.

35 urtetik beherakoei zuzentzearekin ados dagoela esaten dutenen kopurua %63,2a izan da.

Bestetik, ehuneko berdinean (%14,2) adina igo eta adina jaitsi behar dutenak daude.

Bukatzeko, badago gazteen kopuru bat (%8) uste duenak gazteei zuzenduriko neurri berezirik ez lukeela egon behar.


3. GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZAK GIZARTE PARTE-HARTZEAREN TRUKE

Programa honen xedea ondorengo da:

- Gasteizko Udalak proiektu pilotu hau duela pare bat hilabete jarri zuen martxan, gazteek etxebizitza publikoak merke alokatu eta auzoko elkarteetan boluntarioritza lanak egiteko.

Galdetegiaren atal honetan programa horrekin lotutako 8 galdera egin zaizkie:

1. **ETXE KOPURUA:** logela bakarreko 4 etxebizitza daude. Etxe kopurua nahikoa iruditzen al zaizu?




Atal honetan egin zaien lehenengo galdera horretan bi izan dira iritzi nagusiak.

%61,2aren ustez etxe kopurua ez da nahikoa, izan ere, emantzipazio-tasa ikusita etxebizitza gehiago baliatu beharko lirateke.

Beste aldean, kontrako ideia dutenak daude. %34,7aren ustez proiektu pilotu bat izateko eskaintzen diren etheen kopurua ondo legoke.


2. **ESKAERAK:** banakakoak edo bikoteka egin daitezke, gehienez bi adin nagusi eta haur bat bizitzeko etxebizitzetan. Ondo iruditzen al zaizu?



Programa honetan parte hartzeko eskaerak egiterako orduan aukera desberdinak daude eta galdetegia erantzun dutenen %51aren iritziz hori ondo dago.

Gaziki dagoela esaten dutenen artean erantzunak bi arrazoietan banatzen dira. Alde batetik, pertsona batentzako ere logela bakarreko etxebizitza bat txikiegia dela uste dutelako (%14,3) eta bestetik, beste bizikidetza eredu batzuk kontutan hartu behar direlako (%34,7).

3. **KOSTUA:** 200, 300 edo 400 euroko alokairua, aurreko urteko soldataren arabera (gehienez %30), gehi gastuak, hileroko komunitatea (90 euro), konponketak eta zaborren zerga. Zer iruditzen zaizu ordaindu beharreko dirua? ondo egokitzen al dira baldintzak gazteen egoerara?




Alokairuaren kostuari dagokionez erantzun gehienak negatiboak izan dira.

Ehuneko handi batean (%42,8) alokairua ondo dagoela esaten dutenak daude, baina gehigarriekin ez dira ados agertzen.

Bestetik, zuzenean kostua gehiegizkoa dela erantzun dutenak %28,6a dira eta azkenik, kostua gazteen aldakortasun egoerara egokitu beharko zela uste dutenak daude (%16,3).


4. **BALDINTZA EKONOMIKOAK:** Eskatzaileek gutxienez soldata minimoa (650euro) eta gehienez hiru soldata minimo (1.950euro hilabetean) irabaziko dituzte. Zer iruditzen zaizu? Ondo egokitzen al dira limite hauek gazteen egoerara?



Aurreko programan gertatzen zen bezala sarrera ekonomiko minimo eta maximo batzuk ezartzen dira parte hartu ahal izateko. Hala ere, kasu honetan eman diren erantzunak oso desberdinak izan dira, izan ere, %42,9ak ondo dagoela erantzun du.

Baldintza ekonomiko horiekin ados ez daudenen artean %24,5ak uste du diru sarreraren mugak Alokairuzko Etxebizitza Babestuetan eskatzen diren muga berdinak izan beharko liritezkeela eta aldiz, %22,4ak erantzun du mugarik ez litzatekeela egon behar.

5. **ADINA:** 31 urtetik beherakoei zuzendurik dago. Zer iruditzen zaizu?




Adin muga kasu honetan aurreko programarena baino baxuagoa da eta horren ondorioz adina igo beharko zela uste dutenen kopurua igo da guztira %38,8a izanik.

Hala ere, galdetegia erantzun dutenen %40,8ek adin muga hori ondo dagoela uste dute.

Aldiz, adina jaitsi beharko zela %6ak erantzun du.


6. **EPEA:** Urteko kontratua, gehienez 5 urteraino luzatu ahal izango dena. Zer iruditzen zaizu?



Programaren epearekin ados daudenen kopurua gehiengoa da, %69,4a izanik.

Muturreko beste bi erantzunak ere agerikoak dira, izan ere, %20,4ak uste du kontratua motzagoa izan beharko zela errotazioa bermatzeko, eta %10,2a kontratua luzatu beharko zelaren aldekoa da.


7. **BOLUNTARIOTZA:** Alokairu merkea jasotzearen trukean, auzoko elkarte batean hainbat boluntariotza ordu egin behar dira. Zer iruditzen zaizu?



Boluntariotza lanei dagokionez, orokorrean gazteek uste dute ondo dagoela (%85,7), baina horietatik %73,5ak esaten du modu egoki batean kudeatu beharko zela onuragarria izateko.

Kontrako erantzuna eman dutenak %6 eta %4 izan dira. Lehenengoen arabera dagoeneko alokairua nahiko garestia da, eta bigarrenen iritziz gazteek jada denbora gutxi izaten dute eta zaila izango zen denbora ateratzea horretarako.

8. **IKASLEAK:** Bilbon badago antzeko neurri bat, baina logelaka alokatzen dira etxeak (50 euro logelako) unibertsitateko ikasleen artean. Zer iruditzen zaizu? Zergatik?



Azken galdera honetan antzekoa den eta martxan dagoen beste programa batengatik galdetu zaie.

Kasu honetan, %49ak erantzun du ondo dagoela, baina bakarrik ikasleentzat direnean. Kontrako ideia dutenek (%32,8) orokortu beharko litzatekeela esaten dute eta %16,4ek osagarriak direla uste dute.


4. GAZTEENTZAKO ZUZKIDURA BIZITOKIAK

Programa honen xedea ondorengo da:

- "Bizitokien eredu hau EAE osoan ezarrita dago 2006ko Lurzoruaren legea onartu zenetik, baina ez da udal guztietan berdin garatu. Besteak beste, Donostiak 168 bizitoki ditu soilik gazteei zuzenduak, baina Gasteiz, Bilbao, Lekeitio edo Hernanin ere badaude horrelakorik, gazteentzako soilik ez baldin badira ere."


Galdetegiaren atal honetan programa horrekin lotutako 4 galdera egin zaizkie:

1. **ETXE KOPURUA:** 168 bizitoki daude baliagarri. Zer iruditzen zaizu?



Gazteentzako zuzkidura bizitokien etxe kopuruari buruz galdetzean %57,1aren ustez ondo dago. Aldiz, %40,8ak gaizki dagoela esaten du, nahiz eta gazteen kopuruari buruz ezjakintasun bat onartzen duten.


2. **IZEN EMATEA:** Logela bakarrekoak dira eta bi adin nagusi bizi daitezke bertan, eta haur bat aukeran. Ondo iruditzen al zaizu?



Izen ematearekin desadostasunak daude baita ere. Orokorrean ondo dagoela %28,6ak erantzun du, baina kasu honetan, gehiengo baten ustez (%53), ondo legoke soilik proiektu pilotu bat izango balitz, beti ere beste bizikidetzaz ere batzuk aurrakusiz.

Beste aldean, gaizki dagoela esan erantzun dutenak daude, guztira %18,4a izanik. Horien ustez, pertsona batentzako ere logela bakarreko etxebizitza bat txikiegia da.


3. **KOSTUA:** Alokairua 231 eurokoa izango da, eta honi gastuak, hileroko komunitatea eta aseguru bat gehitu beharko zaizkio. Zer iruditzen zaizu ordaindu beharreko dirua? Ondo egokitzen al dira baldintzak gazteen egoerara?



Bloke honetan planteatutako hirugarren galdera kostuarekin zerikusia dauka eta aurreko programaren antzerako erantzunak jaso dira. Izan ere, %53aren erantzunen arabera alokairuaren prezioarekin ados daude, baina gehigarriekin ez.

Eta bestetik, badaude gaizki baloratzen dutenak. Arrazoiak bi motatakoak dira. Lehenengoa, urteko diru sarrerak erabiltzen direla ordaindu beharrekoa kalkulatzeko (%12,2) eta bigarrena, zuzenean kostua gehiegizkoa dela (%24,5).

4. **BALDINTZA EKONOMIKOAK:** Aurreko urtean gutxienez 3.000 euro eta gehienez 35.000 euro arteko diru sarrerak izan behar dituzte eskatzaileek (Babes Ofizialeko Etxebizitzetan eskatzen den bera). Ondo iruditzen al zaizu?



Berrito ere parte hartzeko muga ekonomikoak ezartzen dira eta horietaz galdetu zaie.

la erantzuleen erdia (%49) horrelako muga ekonomikoen alde agertzen da. Baina badaude ados ez daudenak, bai diru limiteak ez direla egon behar uste dutelako bai gazteen diru sarrerak ezegonkorak direlako (%24,5 bi kasuetan).


5. GAZTEAK BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETAN

Programa honen xedea ondorengo da:

- "Babes Ofizialeko etxebizitzak eskatzerako orduan gazteei modu berezitu batean eragiten dieten baldintzak aurkitu daitezke."

Galdetegiaren atal honetan programa horrekin lotutako 5 galdera egin zaizkie:

1. **ERROLDA:** Urtebeteko errola antzinasuna behar da edozein esleipen prozesutan sartzeko (alokairua zein jabetza). Zer iruditzen zaizu?




Kasu honetan izena emateko baldintza bezala ezartzen da erroldan urtebeteko antzinasuna izatea. Hori horrela izanda, galdetegia erantzun duten gazteen %47a ez dago ados baldintza horrekin, behintzat alokairuzko etxeetan.

Hala ere, ondo dagoela uste dutenak ere asko dira, zehazki %42,9a.

Azkenik, erroldan antzinasun gutxiago eskatu beharko zelaren aldekoak (%6) eta kontrakoak (%2) daude.


2. **BALDINTZA EKONOMIKOAK:** Alokairuzko Babes Ofizialeko etxebizitza bat eskatzeko aurreko urtean gutxienez 3.000 euro eta gehienez 35.000 euro irabazi behar izan zenituen. Zer iruditzen zaizu?



Atal honen bigarren galderan baldintza ekonomikoei buruz galdetu zaie, eta %49aren ustez gazteon diru sarreraren ezegonkortasuna dela eta gaizki ikusten dituzte bete beharreko baldintza ekonomikoa.

Gaizki ikusteko beste arrazoi bat da muga ekonomikoa ezabatu behar direla (%25,1). Horien artean lehentasunak diru sarreraren arabera ezarri behar direla uste dutenak daude (%6). Bukatzeko, irizpidearekin ados daudenak ere badaude, guztira %20,4a direlarik.


3. **ARDURA:** Ikusi ditugun proiektu pilotuak ALOKABIDE-k (Eusko Jaurlaritza) eta Udalek bultzatu dituzte. Haien esku egon behar dira neurri hauek?



Arduraren gainean galdetu zaienean gazteen %36,7ak erantzun du udalek gazteen emantzipaziorako neurriak martxan jarri beharko lituzketela eta aldiz, aldundien ardura dela %34,7ak.

Azkenik, soilik Eusko Jaurlaritzaren ardura dela baieztapenarekin ados daudenen ehunekoa %18,3a izan da.

4. **BAREMAZIOA:** etxebizitzak esleitzerakoan baremazio bat erabiltzen da. Baremazio horretan, besteak beste, 30 urtetik beherakoei zein 70 urtetik gorakoei 10 puntu gehiago ematen zaizkie. Zer iruditzen zaizu? Kontuan izan azken esleipenetan 65-70 puntu behar izan zirela




Babes ofizialeko etxebizitza bat izateko zerrendetan sartzeko baremazioari buruz galdetzean adostasun eta desadostasunen artean ehunekoak oso antzekoak dira.

Baremazioa ondo egina dagoela uste dutenen kopurua %36,7a da.

Aldiz, gaizki egina dagoela argumentatzeko arrazoiak oso desberdinak dira, horrela, %40,8 baten ustez oso puntu gutxi ematen zaizkie gazteei eta %20,4aren iritziz adinak ez luke puntu gehiagorik eman beharko.

5. **DEBEKUA:** Orokorrean, Alokairuzko Babes Ofizialeko Etxebizitzetan edo aurrerago azaldutako proiektu pilotuetan ez dago baimenduta inolako ekimen ekonomikorik martxan jartzea. Zer iruditzen zaizu?



Etxebizitza horietan ekimen ekonomikoak martxan jartzeari buruzko debekuari dagokionez dituzten iritziak muturrekoak dira.

Alde batetik, etxebizitza soilik bizitzeko tokia dela erantzun dutenak daude (%49) eta bestetik, ekimen profesional batzuk aurrera eramateko tokia izan daitekeela %42,9ak erantzun du.


6. ETXEBIZITZA EUSKAL LEGEA

Programa honen xedea ondorengo da:

- "Eusko Legebiltzarrak Etxebizitza Euskal Legea onartu berri du aurten. Lege honek etxebizitza politiketan aldaketak ezarriko ditu eta hauek, halaber, gazteei eragingo diete."
-

Galdetegiaren atal honetan programa horrekin lotutako 6 galdera egin zaizkie:


1. **ETXEBIZITZA PREMIA:** legearen 8.artikuluak dio norbaitek etxebizitza premia duela "bizitoki egonkor edo egokirik gabe eta halakorik lortzeko bitarteko ekonomikorik gabe dagoenean eta horregatik gizarte-bazterketako egoeran erortzeko arriskua duenean". Definizio honetan gazteak ordezkaturik daudela uste al duzu?



Etxebizitza premiaren definizioaren barruan gazteak ordezkaturik daudela uste duen ehunekoa gehiengoa da (%57,1), baina, hala ere, badaude kontrako iritzia dutenak. Esate baterako, %28,6aren ustez emantzipazioa ez denez aipatzen, gazteak ez lirateke definizio horren barruan egongo.

Bestetik, ehuneko txikiago batean (%12,2), definizioan gazteak txertatzea beharrezkoa ez dela uste dutenak daude.


2. **ESKUBIDE SUBJEKTIBOA:** Datorren urteetan zehar, derrigorrean, administrazioak hainbat familiei etxebizitza bat baliatu beharko die, hala nola, hurrengo baldintzak betetzen dituztenei: lau urtez alokairu publikoko eskatzaile izan eta 15.000 euro (hiru pertsonatako familiak) edo 9.000 euro (pertsone bakarrekoak) baino diru sarrera baxuagoak izatea. Hau horrela ez izatekotan familiek epaitegietara jotzea izango dute. Zer iruditzen zaizu?



Galdera honetan erantzun gehienak aldekoak izan dira (%81,7), baina horietatik batzuen iritziz baldintzak betetzea oso zaila izango litzateke (%38,8).

Ehuneko txikiago batean aurka erantzun dutenak daude (%18,3), baina arrazoiak oso desberdinak dira. Multzo horren barruan betebeharrak etxebizitza behar duen jende asko kanpoan uzten duela baieztatzen dutenak daude (%14,3) eta bestetik, %4ak erantzun du administrazioak ez duela zertan inori etxebizitza bat erraztu.

3. **PREZIOA ETA ERRENTA EDO KANONA:** 25. artikulua dio babes publikoko etxebizitzaren prezioa hauen azalera, etxebizitza mota, kokapen geografikoa, edukitza-araubidea, kontserbazio-egoera, antzintasuna eta beste alderdi batzuk kontutan izanda ezarriko dela. Zer deritzozu? Ordaindu beharreko prezio edo alokairua zein modutan ezarri beharko litzatekeela uste duzu?




Babes publikoko etxebizitzaren prezioari buruzko erantzunak oso polarizatuak daude.

Alde batetik, prezioa ezartzeko erabiltzen diren alderdiak nahikoak direla erantzun dutenak daude (%44,9) eta bestetik, gertuko ehuneko batekin, %42,9, kontrako iritzia dutenak daude. Azken horien arabera etxebizitza publikoen prezioa bertan bizi diren pertsonen diru-sarreraren arabera ezarri beharko litzateke.

Gutxiengo batek (%6) hainbat alderdi kentzeko beharra dagoela erantzun du.

4. **JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZAK:** legeak etxebizitza hutsei ordaindu beharreko kanon bat ezartzeko aukera ezartzen du. Hortaz gain, hauen erregistro bat egin eta derrigorrezko alokairua ezartzea ere bideratzeko aukera ematen du. Puntu honek gazteek etxebizitza lortzeko duten arazoa konpontzen lagunduko duela uste al duzu?




Galdera honen erantzun gehienak baiezkoak izan dira. %53aren aburuz etxebizitza eskaintza handitzen lagunduko luke, eta %12ak baietz erantzun du etxebizitza hutsak normalean egoera txarrean daudelako eta soilik gazteek onartzen dituztelako.

%10,2aren arabera horrelako neurri bat martxan jartzea ez litzateke aproposa izango.

Bukatzeko, %4aren iritziz arazoa konpontzeko bide egokia ez da alokairua ordaindu ahal izan gabe jarraituko dutelako.

5. **ALOKAIRUA:** legeak ezartzen duenez, datorren urteetan etxebizitzarako gordetako aurrekontuen %80 eta %100-a artean alokairuzko etxebizitzetara zuzenduko da. Puntu honek gazteek etxebizitza lortzeko duten arazoa konpontzen lagunduko duela uste al duzu?




Aurreko galderarekin gertatu den bezala, erantzun gehienak baiezkoak izan dira. Kasu honetan gazteen %51aren iritziz gazteek alokairua gehiago erabiltzen dute eta ondorioz horrelako neurri bat lagungarria izango litzateke.

Bestetik, badaude orokorrean pertsona guztientzat lagungarria izango zela erantzun duen ehuneko handi bat, %34,7a hain zuzen ere.

Erantzun negatiboa eman dutenak guztira %14,2a izan dira. Batzuen ustez neurri hau etxebizitzaren merkatuak atzera botako luke (%10,2) eta besteen arabera (%4) gaur egun oso gutxi eraikitzen denez ez du eraginik izango.

6. **ETXEGABETZEAK:** legearen 74. artikulua dioenez, etxebizitza bat (jabetzakoa zein alokairuzkoa) etxegabetze-prozesu baten baitan dagoela, eta bertan bizi diren pertsonak gizarte-larrialdi egoera berezian geratzeko arriskurik badago, administrazioak behin-behinekoz etxebizitza hauek desjabetu ahal izango ditu, pertsona hauek alokairu publiko baten baldintzetan bertan bizi ahal izateko. Puntu honek gazteek etxebizitza lortzeko duten arazoa konpontzen lagunduko duela uste al duzu?



Galdetegiaren azken galdera honetan %53ak erantzun du prozesu hori lagungarria izan daitekeela gazteentzat gehien bat alokairuetako etxegabetzeak barne daudelako eta %32,7aren ustez gizarte osoarentzat lagungarria da.

Aldiz, %8aren erantzunen arabera gazteek beti izango dute gurasoen etxera joateko aukera eta ondorioz ezezkoa eman dute.

Gainera, %6aren arabera gazteek ez dute arazo ekonomikoak izaten etxea ordaintzerako orduan, beraz, ez litzateke lagungarria izango.

4. GAZTEON PROPOSAMEN OROKORRAK

Atal honetan EAEko gazteon etxebizitzaren inguruko bizipenak, iritziak eta esperientziak azalduko dira. Hasieran azaldu den bezala, galdetegiaren atal bakoitzaren amaieran galdera orokor bat egin zitzaien:

- *"Orokorrean zer iruditzen zaizu? ondo ala gaizki dago? zergatik? nola uste duzu garatu beharko litzatekeela?"*
- *"Eman zure iritzia zure erara."*
- *"Zer beste neurri edo baldintza jarriko zenituzke zuk? Zein uste duzu dela gazteen emantzipazioa lortzeko bidea?"*
- *"Legearen zehaztasunak ezagutzen dituzu? Zer deritzozu? Gazteei zuzenduriko zein neurri barneratu beharko litzatekeela uste duzu?"*

1. Gazteek etxebizitza partekatzeko programa

Atal honetan iritzi ezberdinak dauden arren gehiengoaren ustez programa on bat da, baina hala ere, hobetzeko proposamenak egiten dituzte.

*"El programa esta muy bien pero también tendrían que tener opción de alquilar este tipo de viviendas **parejas jóvenes** ya que parece que tienen mas impedimentos y debería de ampliarse el parque inmobiliario por todos los municipios vascos."*

*"En un principio pinta bastante bien, aunque como ya he opinado anteriormente, creo que **los desempleados y estudiantes también deberían de poder optar** a este proyecto. Espero se tome esta decisión en cuenta o se pueda llevar a superiores y que se extienda territorialmente."*

"Me parece una posibilidad de independizarse más factible que la actual."

*"Está bien. Ha de **umentarse el número de viviendas**, y ofrecerse a jóvenes estudiantes que no trabajen o trabajen muy poco cobrando por lo tanto bajos salarios (azafat@s, promotores/as, profesores particulares...)"*

*"Esta bien pero **no se deberían de pedir ingresos** pues pueda ser que se tenga dinero ahorrado y que tus padren puedan ayudarte"*

Bestetik, badaude kontrako iritzia dutenak.

*"Este programa **me parece un "parche"** al problema que sufrimos los jóvenes hoy en día para poder acceder a una vivienda. También me da la sensación de que va dirigido sólo a jóvenes que están trabajando a jornada completa y con un sueldo digno, cosa que es bastante excepcional hoy en día. Por lo tanto, en mi opinión, este programa no responde en absoluto al problema."*

*"**pocas viviendas**"*

*"Está incompleto puesto que hay **exigencias** que pocos demandantes que en verdad lo necesitan pueden acceder a estas viviendas."*

*"Como proyecto piloto es **un número de vivienda que no arriesga**, pero me parece insuficiente debido al volumen de estudiantes universitarios que viven en piso compartido. Considero que la **oferta debería ser más amplia** para garantizar una calidad aceptable en las posibilidades de estudiar fuera de la provincia natal."*

*"**No me parecen suficientes** porque obviamente se beneficiarán una parte insignificante de los jóvenes que necesitamos estas medidas."*

Azkenik, badaude soilik proposamenak egiten dituztenak.

*"Me parece que los jóvenes deberíamos tener disponible **más información**."*

*"**NO DEBERÍAN ESTABLECERSE LÍMITES**, sino medidas de **PRIORIZACIÓN** para aquellas personas con menores recursos económicos."*

*"Los **intervalos de prórroga me parecen muy escasos**. Un mes es muy poco tiempo; las condiciones de una persona pueden cambiar muy rápidamente en un período de días o semanas, y encontrar un piso en un plazo de un mes puede ser complicado. Me parecerían más razonables prórrogas de 3, 4 ó 6 meses."*

Orokorrean, proposamenak ondorengoak dira:

- Informazio eta programaren zabalpen handiago bat.
- Langabezian edo ikasten ari diren pertsonak parte hartu ahal izatea.
- Apuntatzeko modu desberdinak. Adibidez, bikote gazteak.
- Etxebizitza gehiagoren beharra.
- Diru sarrera minimoak ez lirateke eskatu behar.
- Luzapenen epeak handitu.
- Baliabide ekonomiko gutxien dituzten pertsonak lehenetsi.

2. Gazteentzako etxebizitzak gizarte partehartzearen truke.

Etxebizitzak gizarte partehartzearen trukeko programaren gaineko iritzia nahiko baikorra da.

*"Me parece bien siempre y **cuando se gestione bien** y no se generen asociaciones fantasmas que te dan las horas y no aportas como pasó con los créditos universitarios"*

*"Estos programas están muy bien. El voluntariado y la aportación que se puede realizar a ciertos barrios y pueblos sería muy buena y debería haber **mas viviendas** de este tipo."*

"Creo que es un paso para llegar a movilizar el alquiler."

*"Me parecen bien. Pero no sabía de la existencia de ellos, creo **es importante la comunicación**, creo que de alguna manera se pierde..."*

*"En cuanto a la propuesta de la villa vizcaína es adecuada, pero podría ser un poco más amplia, por ejemplo, dejando que varios **jóvenes se reunieran** para poder llevar a cabo una convivencia durante el curso sin tener que pagar mucho dinero."*

*"Creo que el programa esta bien pero la cuantia **de los extras del alquiler puede variar mucho el precio final**"*

*"Este tipo de proyectos se debería realizar en los **diferentes barrios** de bilbao porque está realmente bien"*

*"Creo que el programa en bilbao debería generalizarse para **jovenes trabajadores** tambien."*

*"Si el proyecto está mas dirigido a esas personas que tratan de emanciparse por completo (i.e., con su pareja), está bien que tengan una habitación, añadiéndose a este proyecto otros proyectos que ofrezcan **viviendas con mas habitaciones** tanto para estudiantes como para jóvenes que tratan de emanciparse, como por ejemplo el proyecto anterior."*

Atal honetan agertu diren proposamenak ondorengoak dira:

- Boluntariora egiteagatik orduak ematen dituzten erakundeen kontrola.
- Etxebizitza kopurua handitu.
- Informazioaren eta programaren zabalpen handiago bat.
- Apuntatzeko modu desberdinak. Adibidez, lagunekin.

- Alokairuen osagarrien zenbatekoa kontrolatu, alokairuen prezioa gehiegi ez igotzeko.
- Auzo gehiagotara zabaltzea.
- Lanean dauden gazteetara zabaldu.
- Etxeen logelen kopurua handitu

3. Gazteentzako zuzkidura bizitokiak.

Gazteentzako zuzkidura bizitokiak dagokienez gehiengo iritzi negatibo bat erakutsi du baldintzak eta betebeharrak ez direlako ondo egokitzen errealitatera.

"IRREAL: se toman como referencia los ingresos del año anterior, pero la realidad joven es muy cambiante. Debería adecuarse a esta realidad."

"Los ingresos de la gente joven son muy INESTABLES en general. Quien tras un periodo de desempleo consigue un contrato también debería tener derecho a solitar la vivienda (de lo contrari tendría que esperar un año entero)."

"Los jóvenes no nos podemos emancipar dado que el alquiler es alto y las viviendas públicas son pocas para todas las personas demandantes."

"También debería ampliarse a aquellos estudiantes o jóvenes que han de residir en otro lugar distinto al domicilio de sus padres, y cuyos ingresos familiares no pueden soportar toda la carga económica del hijo que vive fuera."

"Quienes no trabajen también deberían tener derecho a solicitar los alojamientos, tanto personas desempleadas como estudiantes,"

"Deberían ser proporcionales a la demanda"

"No conozco este tipo de alojamientos"

Hala ere, horrelako etxebizitzak oso egokiak direla uste dutenak ere azaldu dira.

"Me parece un proyecto perfecto y una pena que no se de a conocer más entre los jóvenes para que nos podamos emancipar"

"Estaría muy bien para vivir con una amiga si fuesen dos habitaciones, con tener espacio para cama, armario y una mesa donde estudiar sería mas que suficiente"

Gazteok gazteentzako zuzkidura bizitokiei buruz egiten dituzten proposamenak hauek dira:

- Baldintza ekonomikoak gazteen errealitatera egokitu eta gazteen ezegonkortasuna kontuan hartu.
- Etxebizitza gehiago jarri.
- Apuntatzeko aukera beste gazte batzuei ireki (adibidez, ikasleei)
- Informazio gehiago zabaldu.

4. Gazteak babes ofizialeko etxebizitzetan.

Atal honetan eman diren proposamen orokorrak bideratuta daude babes ofizialeko etxebizitza kopuruari, izan ere, gazteak emantzipatzeko aukera on bat bezala ikusten da baina eskaera eskaintza baino handiagoa da.

"Los jóvenes no nos podemos emancipar dado que el alquiler es alto y las viviendas públicas son pocas para todas las personas demandantes."

5. Etxebizitza euskal legea.

Galdetegiaren azken atal honetan egin diren proposamenak oso gutxi izan dira.

"Creo que debería fomentar el acceso a hipotecas y regular el precio máximo de alquiler de cada zona."

"Habría que tener en cuenta también los ingresos y la posibilidad de hacer o no frente a determinados gastos"

"Debería tenerse en cuenta mas cosas, como el pasado del solicitante."

Izan ere, iritzia eman dutenen artean askok ez dute legea ezagutzen eta horrela adierazi dute.

"No conozco la ley."

"No lo conozco"

5. ONDORIOAK

Gazteen egoera ez da bereziki ona etxebizitza eta emantzipazioari dagokionez eta horrela islatzen dute gaur egungo datuek. Izan ere, EAEn gazteen artean emantzipazio tasa %19,9koa da eta batz besteko adina 29,9 urtetan kokatzen da.

Krisi ekonomikoa hasi zenetik etxebizitza ez lortzearen edo galtzearen arazoa larritu egin da, eta gainera lehen gazteriaren arazo bat zena gizarteko beste hainbeste kolektiboetara hedatu zen.

Beraz, garrantzitsua ikusten dugu arlo honetan administrazioak neurri eta erabaki zehatzak hartzea egoera hobetzeko.

Hori dela eta, ikerketan zehar ateratako ondorio eta gazteen proposamenetatik hurrengokoa eskatzen dugu:

- ✓ **Gazteen parte hartzea programak eta neurriak diseinatzeko:** Gazteriaren beharrak eta iritzia jakitea oso garrantzitsua da, izan ere programak ondo ateratzeko eta emaitza egokiak lortzeko bidea da.
- ✓ **Informazio gehiagoren beharra:** Informazio gehiago eman behar zaie gazteei, bai haien eskubideei buruz zein martxan dauden neurriei buruz.
- ✓ **Eskaintzak gazteen beharretara egokitzea:** Neurriak diseinatzerakoan gazteen egoera ezegonkorra eta haien beharrak kontuan hartzea ezinbestekoa da.
- ✓ **Gazteen egoera desberdinak kontuan hartzea:** Horrelako programa eta neurriak egiterako orduan langabezian edo ikasten ari diren gazteak kontuan hartu beharko lirateke baita ere. Gainera, gazteen errealitatea oso aldakorra eta ezegonkorra da, beraz, faktore horiek barne-bildu beharko lirateke.